

JARDUNBIDE EGOKIEN GIDALIBURUA

Irakasleak eta irakurketaren irakaskuntza



Carmen Albes
Belén Uriarte

2010/2011
(Eibar/Gasteiz)



Berritzeguneak



Jardunbide egokien gidaliburua. Irakasleak eta irakurketaren irakaskuntza

- www.hezkuntza.net



NOLA SORTU ZEN DOKUMENTUA?

- 2007-2008 ikasturtean.
- Hezkuntza Saila eta Dislebi elkarteak.
- Hasierako partaideak:
 - Carlos Ruiz.
 - HPB ko aholkulariak: lurralde bakoitzeko bat.
- Unibertsitateko 2 irakasle.
- Dislebi elkarteko 2 ordezkari.

TALDEAREN OSAKETA

Partaideak:

Susana Villar (Asti Leku Ikastolako orientatzailea - Portugalete)

Ana Teresa Martínez (Ballonti BHI ko orientatzailea - Portugalete)

ISEI-IVEI:

Trinidad Rubio

HPBko aholkulariak:

Lola Damborenea (Leioako BG)

Carmen Albes (Eibarko BG)

Belen Uriarte (Gasteizko BG)

Berritzegune Nagusia:

Isabel Galende (HPBko arduraduna)

Belén Odriozola (HPBko laguntzailea)

Unibertsitatea:

Edurne Goikoetxea (Deusto)

Mikel Haranburu (EHU- Donostia)



DOKUMENTUAREN AURKIBIDEA



- 1.Sarrera
- 2.Hizkuntza eta irakurmenaren garapena
- 3.Irakurtzen irakastea etapa bakoitzean
- 4.Irakurtzeko zailtasun espezifikoak
- 5.Irakurtzeko zailtasunak hautemateko eta ebaluatzeko protokoloa
- 6.Neurri arruntak eta neurri bereziak
- 7.Familientzako orientabideak
- 8.Material eta baliabide hezigarriak
- 9.Bibliografia

1. SARRERA



- **IRAKURKETAREN GARRANTZIA**
- **DOKUMENTUAREN IKUSPUNTUAK**
- **DOKUMENTUAREN ATALEN AURKEZPENA**

2. HIZKUNTZA ETA IRAKURKETAREN GARAPENA(I)

- Komunikazioaren ikuspegia



- Kodearen ikasketa



2. HIZKUNTZAREN ETA IRAKURKETAREN GARAPENA (II)

**Idatzizko hizkuntza eta ahozko hizkuntza:
desberdintasunak.**



AHOZKO HIZKUNTZA:

- Entzumenaren bidez.
- Konkretuagoa eta Espontaneoagoa.
- Testuinguruak ematen duen informazioaren garrantzia.
- Oro har, bizipen iraunkorragoak dira.
- Oro har, komunikatzaileak testuinguru berean daude.

IDATZIZKO HIZKUNTZA.

- Ikusmenaren bidez.
- Abstraktuagoa eta landuagoa.
- Testuingurutik askeago dago eta, hortaz, esplizituagoa da.
- Oro har, bizipen konkretuetatik urrunago eta askeago dago.
- Zeinuek iraun egiten dute.
- Oro har, komunikatzaileak testuinguru ezberdinetan daude.



2. HIZKUNTZA ETA IRAKURKETAREN GARAPENA (III)

Irakurtzeko prozesuaren hasierako faseak

- Alfabetatu aurreko fasea (3 eta 4 urte artekoa)
- Alfabetatze partzialeko fasea (5 urteen ingurukoa)
- Alfabetatze osoko fasea (6 urteen ingurukoa)
- Alfabetatze finkatuko fasea (7 urteen ingurukoa)



2. HIZKUNTZA ETA IRAKURKETAREN GARAPENA(IV)

Irakurtzen ikasteko prozesuak

- Hitzen ezagutzan parte hartzen duten prozesuak
 - Pertzepzio prozesuak
 - Prozesu lexikoak
- Esanahien identifikazioan parte hartzen duten prozesuak:
 - Prozesu sintaktikoak
 - Prozesu semantikoak

3. IRAKURTZEN IRAKASTEAREN ETAPA BAKOITZEAN (I)

Ikerkuntza zientifikoan oinarrituak: National Reading Panel
(NRP)

Irakurketaren irakaskuntza HAUR HEZKUNTZAN

- Kontzientzia fonologikoaren garrantzia
- Jardunbide egokiak:
 - Ikasleei mota askotariko testuak irakurtzea: ipuinak, olerkiak, asmakizunak, deskripzioak, testu literario herrikoiak...
 - Idatzizko hainbat hitzen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak lantzea.
 - Fonemekin jolastea: fonemak banatu, elkartu, identifikatu, kategorietan sailkatu...

3. IRAKURTZEN IRAKASTEA ETAPA BAKOITZEAN (II)

Irakurketaren irakaskuntza LEHEN HEZKUNTZAN

LEHEN ZIKLOA

- Haur Hezkuntzan ikasitakoa finkatzen da
- Adin honetan ikasleek ahoskera finkatzen dute, eta lexikoa eta ulermena garatzen dute.
- Bestalde, idatzizko kodea, testu eta formatu desberdinetan sakontzeko unea da.
- Fonetikaren irakaskuntza.

- Jardunbide egokiak:
 - Alfabetoa sistematikoki landu, grafema-fonema bihurtzeko arauak automatizatzeko.
 - Ulermena landu testu mota desberdinak erabiliz (gonbidapenak, albisteak, eskola liburuak...).

3. IRAKURTZEN IRAKASTEA ETAPA BAKOITZEAN (III)

Irakurketaren irakaskuntza Lehen
Hezkuntzako 2. eta 3. Zikloetan

- Arintasunaren irakaskuntza
- Irakurtzen duguna ulertzen irakastea
- Hiztegiaren irakaskuntza
- Jardunbide egokiak

3. IRAKURTZEN IRAKASTEA ETAPA BAKOITZEAN (IV)

Irakurketaren irakaskuntza DBHn eta DBHOn

- Jardunbide egokiak:
- Gaitasun digitalaren garapena sustatzea.
- Testuen ideiak antolatu laburpenak, eskemak, etab. erabiliz.
- Komunikazio-proiektuetan oinarritutako ikaskuntza-prozesuak lantzen dituzten metodologiak erabiltzea. Testuak izan behar du funtsezko komunikazio unitatea.

4. ZER DA DISLEXIA? (I)

- DSM IV eta CIE 10 sailkapenetan oinarriturik:

- "Ikasteko zailtasunen" barruan kokatzen dituzte "Irakurketaren trastornoa".



4. DIAGNOSIRAKO IRIZPIDEAK (II)

- A.** Irakurketaren maila, irakurketaren gaitasuna eta irakurketaren ulermena neurtzen duten test estandarizatuen bidez neurtuta, bere adimena normala izanik (CI), bere adinentzat hezkuntza egokia jaso duen arren, bere irakurtze-idazte maila (2 urte) baxuagoa denean.
- B.** A irizpidean azaldutakoak, atarramentu egokia eragozten du.
- C.** Zentzuetako defizit bat egonez gero, irakurtzeko espero diren baino zailtasun handiagoak badira.

4. DISLEXIAREN DEFINIZIOA (III)

“Ikasteko zailtasun espezifiko bat da dislexia, eta jatorri neurobiologikoa du. Bere ezaugarri nagusiak dira hitzak zehaztasunez eta arintasunez ezagutzeko zailtasunak izatea eta haiek letreiatzeko eta deszifratzeko trebetasun eskasa izatea. Zailtasun horien jatorria, oro har, hizkuntzaren elementu fonologikoaren gabeziak izaten dira [soinua hautematea], eta errealitate hori ez da espero zitekeen zerbait, pertsonaren beste trebetasun kognitibo batzuei eta eskolan jasotzen den heziketaren kalitateari erreparatuta. Dislexiaren bigarren mailako ondorioak izan daitezke irakurritakoa ulertzeko arazoak izatea eta irakurtzeko eskarmentu edo praktika gutxi izatea, eta, ondorioz, dislexia duten pertsonak hitzak ikasteko eta jakintza orokorrak eskuratzeko arazoak izan ditzakete” (Dyslexia Working Group, 2002, 9. or.).

4. ATZERAPENA EDO TRASTORNOA (IV)



-TRASTORNOA:


Trastornoaz mintzatzen garenean, neurri batean edo bestean denbora luzean irauten duen zailtasun espezifikiko batez ari gara. Arazo neurobiologiko batekin lotuta dago zailtasun hori, eta horrek esan nahi du ikasleak ezin duela normalki garatu abilezia, zenbat denbora ematen diogun eta zenbat aukera ematen dizkiogun gorabehera.

-ATZERAPENA:

Atzerapen terminoa, berriz, irakurtzen edo/eta idazten ikasteko beharrezko abilezien jabetuntzan atzeratzearekin lotuta dago, eta zera dakar: haurrak normala baino denbora luzeagoa behar izatea gaitasun batez jabetzeko baina, azkenean, gaitasun horretaz normal jabetzea.




4. KONTZEPTUALIZAZIO TRADIZIONALA (V)



4. IRAKURTZEKO ZAILTASUN ESPEZIFIKOAK (VI)


- Trastorno edo atzerapena



4. SINTOMA ESPEZIFIKOAK (VII)


- Zehaztasun-akatsak; letrak nahastea; letrak edo hitz osoak aldatzea, gehitzea, ezabatzea edo ordezkatzea.
- Denborazko akatsak: hitzak errepikatzea, hitzak silabetan zatikatzea eta atzera itzultzea.
- Poliki, nekez, erritmoari jarraitu gabe eta oker intonatuz irakurtzea.
- Hainbatetan, irakurritakoa ezin ulertzea; azalpena ahozkoa bada, berriz, mezua ulertzeko zailtasunik ez izatea.
- Idazteko zailtasunak.

- ...




4. DISLEXIAREN SAILKAPENA (VIII)

- **HARTUTAKO DISLEXIA:** garuneko lesio baten ondorioz sortzen da
- **DISLEXIA EBOLUTIBOA** (oinarri neurobiológikoa):
 - Fonologikoa
 - Azalekoa edo lexikoa.
 - Mistoa



4. GAUR EGUNGO IKERKETAK

BCBL (Donostia) J.A. DUñabeitia



5. ALERTA ADIERAZLEAK (I)

Alerta-adierazleak Haur Hezkuntzan

- Zailtasunak prozesaketa fonologikoarekin

Zailtasunak epe motzeko eta epe luzeko hitzezko oroimenarekin: gauzen sekuentziak eta segidak (asteko egunak, zenbaki-serieak, etab.) gogoratzeko abilezia eskasa.

Hitz polisilaboetako sekuentzien ordenari eusteko zailtasunak (adibidez, *bolamula* esatea *bolaluma* esan ordez).

Koloreen, letren, zenbakien... izenak erraz ikasteko eta erabiltzeko zailtasunak. Zailtasunak errimarekin.

Hitzak gogoratzeko edo hitzei etiketak jartzeko zailtasunak.

- Ahozko hizkuntzaz jabetzen atzeratzea:

Esaldirik ez esatea 2 urte eta erdi izan arte.

Antzeko hitzak ahoskatzen nahastea.

- Irakurmenaren eta idazmenaren trastornoak edo nahasmenduak izatea familian.



5. ALERTA ADIERAZLEAK (II)

Lehen Hezkuntzako 1. zikloa



Lehen Hezkuntzako lehen maila bukatzean:

- Aurreko etapako alerta-adierazleak izatea oraindik;
- kode alfabetikoaz eta grafemen eta fonemen arteko egokitasunaz ez jabetu izana.
- Eta irakurketa mekanikoa automatizatu ez izana.

Lehen Hezkuntzako bigarren mailan, aurrekoez gain,

- Alfabetoa gogoratzeko zailtasunak izatea.
- Letrak, silabak edo/eta hitzak isiltzea, ordezkatzeta, alderantzikatzea, aldatzea edo gehitzea.
- Irakurritakoa zuzentzea, poliki irakurtzea eta duda egitea, hitzak silabetan zatikatzea eta lerroz galtzea.
- Irakurritakoa ez ulertzea, zeinuak deskodetzeko ahalegin gehigarria egin Beharra..

5. ALERTA ADIERAZLEAK (III)

Lehen Hezkuntzako 2. Eta 3. zikloa



- Aurreko etapako eta zikloko alerta-adierazleak izatea oraindik.
- Irakurketa automatizatzeko zailtasun handiak eta ahalegin gehigarria egin behar izatea horretarako, eta poliki eta nekez irakurtzea.
- Idazlanak planifikatzeko eta egiteko eta ahozko diskurtsoak prestatzeko zailtasunak.
- Funtsik gabeko gramatika erabiltzea eta ortografia-akatsak egitea.
- Autokonfiantzarik eza eta frustrazioa areagotzea.
- Idazteko zailtasunak.
- Problemen enuntziatuak irakurtzeko zailtasunak.


5. ALERTA ADIERAZLEAK (IV)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBHn) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoan (DBHOn)

- Aurreko etapetako zenbait alerta-adierazle izatea oraindik.
- Zailtasunak hitz ezezagunekin edo sasihitzekin.
- Poliki irakurtzea.
- Irakurtzea edo/eta idaztea saihestea.
- Irakurritakoa gutxi ulertzea, irakurritako testuen gaiak ulertzeko zailtasunak.
- Ozen irakurtzeko zailtasunak.
- Idatziz adierazteko zailtasunak. Lexiko urria erabiltzea, esaldiak ez lotzea, lokailurik ez erabiltzea eta, hainbatetan, aurreko etapan bezala, letrak, silabak edo/eta hitzak isiltzea, aldatzea edo gehitzea. Kontakizunak eta, oro har, idazlanak planifikatzeko eta idazteko zailtasunak.
- Atzerriko hizkuntzak ikasteko zailtasunak.
- Ikasten denbora asko eman arren, emaitza eskasak lortzea eskolan.
- Irakurmena edo idazmena erabili behar denean nagusiki, ikasteko jarduerak egiteko motibazioa galtzea.
- Gelan ohikoak diren testuei buruzko inferentziak egiteko ezintasuna.
- Autoestimu eskasa, antsietatea, urduritasuna...



IRAKURTZEKO ZAILTASUNAK HAUTEMATEKO ETA EBALUATZEKO PROTOKOLOA



ESKU HARTZEKO ESTRATEGIA NAGUSIAK, ADINAREN ARABERA

Prebentzioa	Berriz heztea (Reeducación)	Berriz heztea eta curriculumean sartzeko egokitzapenak	Curriculumean sartzeko egokitzapenak
6 –7 urte arte	7 – 10 urte bitartean	10-12 urte bitartean	12 urtetik aurrera

**Dislexiaren seinaleak aldatu egiten dira
bizitzan zehar**

6. NEURRI ARRUNTAK (I)

Etapaz edo zikloz aldatzea (trantsituak):

- Informazioa biltzeko dokumentuak, koordinazio bilerak zikloen eta etapen artean irizpideak bateratzeko, tutorizazioak zaindu ...

Neurri arruntak:

- Hezkuntza indartzeko neurriak.
- Materialak, metodologia eta ebaluazioa egokitzea.
- Ikasleak beste urte batez jarraitzea ziklo edo maila berean.



6. NEURRI BEREZIAK (II)



- ECI
- Lehen Hezkuntzan beste ikasturte bat ematea.
- Unibertsitatean eta Heziketa Zikloetan sartzeko azterketak egokitzeko eskatzea

6. UNIBERTSITATEA (III)

-PAU: Unibertsitatean sartzeko probak.

- Euskal Herriko Unibertsitatea. Prozesua eta egokitzapen motak. discap@ehu.es , www.ehu.es (Mamen López) 943/015184
- Deustuko Unibertsitatea: Prozesua eta egokitzapen motak www.accionsocial.deusto.es




7. TRATAMENDUEI BURUZKO HAUSNARKETAK (I)

- Irakurtzearekin lotutako ariketak eginez hobetzen da dislexia.
- Orokorrean entrenamendu fonologikoari lotutako programak oso gomendiagarriak dira.
- Haur Hezkuntzan, funtsezkoa da kontzientzia fonologikoa areagotzea.
- 6 eta 9 urte bitartean:
 - ahozko zein idatzizko kontzientzia fonologikoa areagotzea
 - irakurketa mekanikoaren automatizazioa hobetzea.
- 10 urtetik aurrera:
 - testuak ulertzeko estrategiak eman behar diogu lehentasuna ordutik aurrera.
 - Ikasten laguntzeko estrategiak eman: kalkulagailuak, ahots-grabazioak, testu-prozesagailuak, testu digitalak entzunezko artxibategiak ...



7. TRATAMENDUEI BURUZKO HAUSNARKETAK (II)



- Tratamendu hauek ez dira komenigarriak ez dutelako jakintza zientifikoaren oinarria:
 - Ikusmenaren trebakuntza optometrikoa (optometria)
 - Koloretako leiarrak (lentes)
 - Zerebeloaren eta bestibuluaren trebakuntza
 - Atzeraelikadura elektroentzefalografikoa
 - Zinesiologia aplikatua (garezurreko osteopatia)
 - Zaharkituta gelditu diren hezkuntza-arloko beste terapia batzuk: lateralitatea, orientazio espaziala, etab. hobetzeko programak.


...

8. MATERIALA ETA BALIABIDEAK



-Ikasgelako materiala. Irudimena landu eta birzikla daitezkeen materiala erabili: postaz banatutako esku-orriak, festen propaganda, aldizkariak, hitzak lantzeko jokoak, dominoak...

-Ordenagailu-programak eta Web orriak



9. FAMILIENTZAKO ORIENTABIDEAK

- Gurasoek beren seme-alaben irakurketa eta idazketa jardueretan parte hartzea eragin onuragarria du.
- Irakurle onak hazteko hamar printzipioak.
- Ideia erabilgarri batzuk, etapaz etapa: HH, LH, DBH eta DBHO
- Jarduerak eta jolasak:
 - Ulertzeko irakurtzea
 - Partekatzeko irakurtzea
 - Asmatzeko irakurtzea.



9. ELKARLANA: FAMILIA ETA ESKOLA

- IRAKURKETAREN ZAILTASUNEN AURREAN
Ezinbeztekoa da eskola eta familiaren arteko
elkarlana.



E S K E R R i K

A S K O

